

## Erregetako kabalgatarik ez: umeentzako ekitaldia da egingo dena

- Udalak dio Kabalgatari eman beharreko diru laguntzak azarotik emanak daudela
- Kabalgatako arduradunak, berriz, jende faltagatik erabaki zuela ez antolatzea.

### MIREN FERNANDEZ

(Kabalgatako arduraduna)  
“Andoain eta Lasar-  
ten udalak antola-  
tzen du. Uste dut  
Hernanin ere hala  
antolatu beharko  
lukeela. Guk lagun-  
duko dugu.”

### UDALA

“Gure politika ez da  
udalak ekitaldiak  
antolatzea. Antolatu  
herriko taldeek egin  
behar dituzte, eta  
udalak lagundu”



Hernaniko kabalgatak ez du karrozarik aterako. (Biyok, 1998)

ERREGENETAKO kabalga-  
tarik gabe hasiko da datorren  
urtea, eta horrek saltsa handia  
sortu du herrian: zurrumurruak,  
amenaza soinuak, jendea kale-  
an gelditu, udalaxera deika...  
Kronikak bi aldeekin hitz egin  
du: kabalgatako arduradunare-  
kin -Miren Fernandez- eta uda-  
larekin -Lurdes Etxeberria-.

### JENDEA FALTA

“Iaz ere jendea bildu ezinik ibi-  
li ginen, eta jende asko behar  
da kabalgata behar bezala egi-  
teko: 40-50 lagun gutxienez”  
Mirenek. Aurten ere ez dira  
osatu eta ez egitea erabaki dute.  
Zenbait jendek, ordea, “jende  
arazoa problema politiko bi-  
hurtu du” Fernandezek.

### “LEHEN ERE EZ”

“Udalak ez du inoiz Erregeta-  
ko kabalgatarik antolatu izan”  
Etxeberriak. “Gainera, gezurra  
da guk Olentzero bultzatu eta  
kabalgatari trabak jarri dizkio-  
gula. Azkenik, Udaleko Go-  
bernu taldeak “era horretako  
ekintzak antolatzen jarraitze-  
ko” gonbitea egiten du. □



Atzo bazen Tiloen horbela baino bela gozoagorik, Tilosetan.

## Marihuana probaketa atzo, Tilosetan

URTEROKO ohitura bihurtu  
da, Gabon inguruan, marihua-  
na probatzea. Hernaniko eta  
kanpoko uztarik onenak eka-  
rri eta lagun artean erre ohi  
dira (edo pastatan jan). Azke-  
nerako denak bihurtzen dira  
jakitun: zeinek zapore hobea,  
zein gogorragoa... Aurten  
istan batean bukatu omen  
dira probisioak. □

### ODOL EMATEA

## Odola emateko, urteko lehen eguna asteartean

- Arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara Anbulatorioan



Hernaniko Pikoa baserrian txerria hiltzen

HILEROKO lehen asteartea  
izaten da odola emateko  
eguna. Etzi gainera, mendeko  
eta milurteko lehena izango da;  
bada zerbait.

### IAZ 30 BERRI

Iaz 871 poltsa odol atera zi-  
ren. 30 izan dira emale be-  
rriak; organu emaleak, be-  
rriz, 16. □

## Urte Zaharretako errondak agurtuko du ‘Bertso Lata’

- Atera nahi duena: gaur, 17:15etan udaletxeko arkupeetan
- Ahotsa gozatuta eta baserriar jantzita azaldu.

### ■ FUTBOLA (GORENGO MAILA)

## Hernani-Aretxabaleta

- Zubipen goizeko 11:30etan, gaur.

### IPUIN KONTAKETA LIBURUTEGIAN

## 3-8 urte bitarteko umeentzat

- 11:00etan 3-4 urte bitartekoentzat, eta 11:30etan 5-8 bitar-  
tekoentzat. Kontalaria: Itziar Zubizarreta.

## Bihar Urte Berri eguna ez da Kronikarik izango

- 2001 urteko Kronikaren kalendarioak salgai daude Kios-  
koetan: Haundiak 500 Ptan eta txikiak 100 Ptan.

## IRUNE

Estetika

- Depilazioak
- Makilajea
- Betileak
- Manikura
- Masajeak
- Pedikura
- Aurpegi tratamenduak
- Solariuma

Zorionak  
eta urteberri on!

Kardaberaz 51. Behea  
Tel. 943 55 71 13 -HERNANI

URUMEA  
BURDINDEGIA

Zorionak eta urte berri on!

Nagusia 42 ☎ 943 551327 HERNANI

TELEBISTAK  
BIDEOAK  
BIDEOKAMARAK  
ETXE TRESNAK

## ANEXO

Segundo Izpizua, 21  
Tel. 943 55 03 81  
20120 HERNANI

## UGALDE, S.A.

SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16  
Tel. 943.551.598  
Faxa 943.552.067  
20120 HERNANI

Zinel

## Telemar

ITXASTELE S.L.

Telyco denda  
Elkano 13, HERNANI  
☎ 943 33 26 00

‘Telefonica’ko banatzailea, Movistar, zentralitak, ‘Centrex’,  
Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, “Via digital”,...

Eguberritako eskaintza:  
‘Pack Movistar Activa’ 12.900 pztatik  
(8.000 pzta deietan)

## 220 igerilari Gabonetako torneoan eta 27 medaila Hernanirako

■ Olatz Altunak irabazi du Hernani Saria ■ Herrikoen maila igo egin da iaztik.



Igeriketa Elkarteko lehendakaria, Aizpurua, Olatz Altunari Hernani Saria ematen.

IGERIKETA Elkartek antolatuta, Gabonetako torneoak jokatzen atzo. Igerilari eta domina festa latza izan zen. Antolatzailak, berriz, oso gustora gelditu ziren: "Oso ondo aterata da dena. Igerilari asko etorri da eta sari banaketa iaz baino errezago moldatu dugu".

**ZAZPI TALDE**  
Gipuzkoako zazpi talde izan ziren atzoko torneoan: *Easo* eta *Aletiko* Donostiatik; *Igarondo* Tolosatik; *Ereintza* Oreretatik, *Izarraitz* Bergararik, *Ordizia* eta *hernaniarrak*. Publikoa: kiroldegiko harmailak bete egin ziren, kristaletako

ko lurrinak ezer asko ikusten uzten ez bazuen ere.

### HERRITARRAK 60

Hernaniarrak ondo bete zuten berea. Eskolarteko mailakoek irabazi zituzte medaila gehiena. Absolutuetan, Jon Casasek bigarren egin zuen. □

## JASOTA BEZALA

**Ongintza patronatuko ELA eta CCOO** EHren lan politika salatu nahi dugu. Badakigu jakin, Hernaniko emakumeen egoeraz kezkatuta daudela; eta horregatik ari direla gai honen inguruan egingo duten inkestaren berri ematen. Zertarako balio du? Zertarako, egoera hau okerragotzeko pauso haundienak Ongintzako Lehendakariak berak ematen dituenen?

Ongintza Patronatuan, emakume batzuk parora joatea lortu du Lehendakariak; eta kasurik onenean subkontrata bidez lan egitea. Hori al da emakumearen egoera hobetzea?

Urte hasieran etxez etxeko

zerbitzua pribatizatuko da eta sei hilabetetan amortizatuko dira lanpostuak. Dirudienez Zaharren Egoitzako labanderi zerbitzuarekin ere gauza bera egingo dute. Noiz bukatuko da politika hau? Hauteskundeetako programak eta promesak zertarako balio dute? Berdintasuna ez al da zuen programa politikoko parte, eta langileen helburu (emakumeena bereziki)?

EH oposizioan egon izan denean lan postuen pribatizazio eta amortizazioaren kontra egon izan da eta gure eskarrietan babestu izan gaitu.

Beroitz jauna: non dago orduko espiritu hura? Hainbat kritikak duzuen Kapitalis-

moaren alde ari zarete; LAB sindikatuak lagunduta, gainera. LABek isilean pasatzen du, bere garaian, pankartekin kalera aterata salatu izan duena.

Nahikoa da. Ez gehiago engainatu duintasunez eta ondokoaren baldintza berdinetan lan egin nahi duena. Ez haibeste inkesta egin, eta bideak jarri emakumeen eta edozein langileren egoera duina izan dadin.

Laburbilduta: zein desberdintasun dago EH eta PPre artean, politika sozioekonomikoan?

**Ongintza patronatuko ELA eta CCOO** (Erredakzioak euskeratua)



'Zinko Enea' Kioskoak,  
**Zorionak eta urte berri on!**

Bezere eta hernaniar guztioi.  
Zinko Enea - HERNANI

**Eizagirre-Kerejetarrok** 'eizagirre' eta 'kerejeta' guztioi (arrak eta emeak) "Urte Berri berri, berri...on" bana opa dizuegu, nonahi zaudetela ere.



ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

## ADARRAGA

Konfitegia  
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7  
☎ 943 55 09 10



## HITZ BITAN



Umeak eskulanak egiten, Iturritxo auzo elkarteko lokalean.

### ✓ LATXUNBE BERRI

**80 ume pasa ziren ostiral eta larunbateko tailerretan.** Ostiralean diapositibak izan zituzten; larunbatean, berriz, txontxongiloak, agendak... Antolatzaila Iturritxo auzo elkartea da eta Doberako Kilkerra taldekoak monitorea.

### ✓ KRONIKA PELOTA TXAPELKETA

**Urtarrilaren 14ean bukatuko da lehen buelta.** Ondoren bigarren buelta egingo da eta jarraian finalaurrekoak. Sailkapena: Lehenengo Iturbe-Tutu (16 puntu), bigarren Legarreta-Gorka (15 p), hirugarren Joxe-Zelaia (11 p) eta laugarren Ion-Dabid (10 p).

### ✓ AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK

**Martuteneko espetxera martxa, gaur.** Arratsaldeko 17:00etan irtengo dira Astigarragako poligonotik eta Gladiseneatik. 18:00etan ekitaldia egingo da. Urtarrilaren 3an, kotxe karabana aterako da Atsegindegitik 20:00etan. Auzoz auzo ibiliko da.

### ✓ SENIDEAK ELKARTEA

**Kontzentrazioa, gaur, Gudarien Plazan, 13:00etan.** Euskal presoak Euskal Herritarrezaren alde egingo da, Hernanin eta herri gehiagotan.

### ✓ MUSIKA

**Trakets bihar Oialumen, 19:30etan.** Gaur, Urte Zahar eguna, itxita egongo da.

### ✓ ZINEA

**Asterix eta Obelix gaur eta bihar, Biterin 17:00etan.** Astelehenean, *Woman on top*. 19:30etan.

### IRRATIAK

(EM. 99.2): 19:00: 'Lazkao Txiki bapateko sorgina'; Lazkao Txikiren bertsoak Xabier Amurizaren ahotik. Urte Zaharreko afaria prestatzen ari direnen goxagarri.

### HERIOTZAK

**Emilio Peña Lopez**  
Ostiralean hil zen 57 urte zituela.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
► Udaltzaingoa: 943 333288  
► DYA: 943 464622  
► Autobusak: 943 556662  
► Anbulatorioa: 943 557750

#### ☎ FARMAZIAK

► Egunez: Chucla  
Kardaberaz, 48  
☎ 943 5551793  
► Gaez: Iturralde  
Usurbil. Hamairu poligonoa, 9  
☎ 943 363395



**SANTA BARBARA**

PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

### AUTO ETA FURGONETA ZAHARRAK HARTU ETA 2. ESKUKOZ ALDATZEN DITUGU

- Peugeot 405 *Diesela nahiz Gasolina* 350.000 pza
- Peugeot 205 *Diesela* 350.000 - 680.000 pza
- Citroen C-15 *Diesel* batzuk 380.000 pztatik
- Ford Courier *Diesela-Lagundutako direkzioa*
- Opel Astra 'Caravan' *Diesela* 775.000 pza
- Opel Astra *Diesela* 875.000 pza
- Suzuki 'Todo Terreno' 375.000 pza

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...